



# URTEKO PROGRAMAZIOA

2015~16

<b>IKASTETXEA</b>	<b>AIXERROTA BHI</b>	<b>KODEA</b>	<b>015109</b>
<b>Arloa/ Irakasgaia</b>	<b>MUSIKA</b>	Zikloa / Maila	DBH 1
<b>Irakasleak</b>	<b>Almudena Martinez, Henar Sarabia, Itsaso González</b>	Ikasturtea	2015~16

<b>HELBURUAK</b>	<b>EBALUAZIO - IRIZPIDEAK</b>
<p>1.- Musikak ideiak, sentimenduak eta bizipenak helarazi eta adierazteko eskaintzen dituen aukerak ulertzea, era askotako musika-adierazpenak errespetatu, ulertu eta estimatzeko gaitasuna indartuz</p> <p>2.- Musikaren gizarte-eginkizunen eta erabilpenen berri eta beste hizkuntza artistikoekin, jakintza-arloekin eta, horrez gainera, ikus-entzunezko hedabideekin eta komunikabideekin dituen loturen berri izatea</p> <p>3. - Estilo, genero, joera eta kultura askotako musika-lanek erabiltzen dituzten tekniken, baliabideen eta konbentzioen berri izan eta aztertzea</p> <p>4- Ikus-entzunezko hedabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien berri izan eta erabiltzen jakitea bai musika sortzeko, bai norbere kabuz ikasteko eta bai musikaz gozatzeko</p> <p>5.- Gure inguruan musikak eta soinuak dituzten eginkizunak eta erabilpenak zentzu kritikoarekin aztertzea, erabilpen horiekin giza jarduerak sortarazten dituen eraldaketek eta soinu-paisaietan duen eraginaz gogoeta eginez</p> <p>6.- Isiltasunak duen garrantzia baloratzea</p> <p>7.- Musika ezagutzeko eta hartaz gozatzeko, prozesu musikalak eta hitz egokiak erabiltzen ikastea</p>	<p>1. Musikan erabiltzen diren teknikak eta baliabideak zein diren jakitea eta kultura-testuinguruekin lotzea.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1.1. Egiten dituen jardueretan musika erabili eta sartu.</li><li>1.2. Musikaren alderdi komunikatiboaz jabetu.</li><li>1.3. Musikarekiko edo ikusizko jardueretikiko zaletasuna erakutsi.</li><li>1.4. Artelanak adierazten duen informazioari buruzko interesa izan.</li><li>1.5. Musika-ekoizpenaren eta hura ager daitekeen egoeren artean loturak ezarri.</li><li>1.6. Musika-adierazpen jakin batzuen teknikak zein diren ikasi.</li><li>1.7. Unean-unekeo premien arabera, behar den musika egokia aukeratu.</li><li>1.8. Artelanek kultura-balio interesgarriak dituztela ikusi.</li><li>1.9. Artelan batek eragiten dion ekarpena adierazi.</li></ol> <p>2. Musika-proposamenak egiteko jasotako ezaguerak aplikatzea, eta teknika zein baliabideak erabiltzea, egoera bakoitzaren aurrean erantzun sortzaileak bilatuz.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>2.1. Musika-kodea behar bezala erabili.</li><li>2.2. Musika interpretatzeko eta musikaren bidez komunikatzeko musika-hizkuntzaren oinarrizko osagaiak antolatu.</li><li>2.3. Musika-ekoizpen bat egiteko gaiari buruzko jakintzak behar bezala erabili.</li><li>2.4. Interpretatzeaz edo sortzeaz dagoen lana buruz prestatu.</li><li>2.5. Musika-lanean jarraitu beharreko pausuak behar bezala antolatu.</li><li>2.6. Soinuzko edo ikusizko parametroen artean desberdintasunak sumatu.</li><li>2.7. Musika-hizkuntzaren bitartez</li></ol>



	<p>komunikatzeko baliabide bat baino gehiago autonomiaz erabiltzeko gai izan.</p> <p>2.8. Musika-komunikaziorako teknika egokia erabili.</p> <p>2.9. Musika-ekoizpen bat egiteko, ahotsarekin edo musika-tresnekin soinua aztertu.</p> <p>2.10. Musika-ekoizpen bat egiteko, mota askotako soinu-gaiak manipulatu eta aztertu.</p> <p>2.11. Musika-lana interpretatu edo berregiterakoan aukera berri bat baino gehiago frogatu.</p> <p>2.12. Musika-ekoizpen bat egiteko irudimena duela erakutsi.</p> <p>2.13. Lan bat interpretatu edo berregiteko baliabide bat baino gehiago erabili.</p> <p>2.14. Inprobisazio edo sorkuntzarako baliabide bat baino gehiago aplikatu.</p> <p>2.15. Musika-lana hobetzeko ideiak ematen ditu.</p> <p>2.16. Musika-lanari originaltasuna ematen dioten soinuak proposatu.</p> <p>2.17. Musika lanari ñabardurak eman eta bukatzeko ideiak proposatu.</p> <p>3. Musika egitean norberaren eta besteen ekarpenen garrantziaz jabetzea, eta ikasgelan egiten diren musika-jarduerez gozatzea.</p> <p>3.1. Musika adierazpide gisa erabiltzearekin segurtasuna eta gozamina erakutsi.</p> <p>3.2. Soinuzko elementuak sentimenduak adierazteko askatasunez erabili.</p> <p>3.3. Lanaren aurkezpena helburuarekin bat etortzeko eran antolatu.</p> <p>3.4. Egindako arte-lana aztertzen du eta hobetzen saiatu.</p> <p>3.5. Musikazko adierazpen-moduak erabili komunikazio-bide gisa.</p> <p>3.6. Norbere burua ezagutzeko adierazpen artistikoa erabili.</p> <p>3.7. Prestatutako musika-lana kontuz interpretatu, ñabardurei arreta jarritz.</p> <p>3.8. Interpretazioei adierazkortasuna eman.</p> <p>3.9. Adierazkortasunerako baliabide pertsonalak ezaguera teknikoarekin bateratu.</p> <p>3.10. Musika norbere burua eraikitzeko eragile izan dadin saiatu, baita taldeari ekarpena egin diezaion ere.</p> <p>3.11. Kalitatezko lanak egitea atsegin izan.</p> <p>3.12. Talde-lanari dagokion garrantzia eman.</p>
--	--



# URTEKO PROGRAMAZIOA

2015~16

3.13. Norbere lanaren erritmoa moldatu, taldeko erritmorako egokitzeko.

## EDUKIEN SEKUENTZIA

( denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

### 1. Ebaluaketa

1. Soinua eta isiltasuna, musika eta zarata, soinuaren parametroak.
2. Notak eta iduri ritmikoak. Konpasa.
3. Ostinatoa eta kanona.
4. Giza ahotsen sailkapena
5. Perkusiozko musika tresnak
6. Bertsoaren teoría eta teknika

### 2. Ebaluaketa

1. Luthierrak
2. Harizko musika tresnak
3. Musika eta ohiturak Euskal Herrian
4. Kalderoia eta puntua
5. Orkestra sinfonikoa
6. Orkestra motak
7. Gaur egun, bai bertsoetarako erabiltzen diren melodiak, zein melodia klasikoak landu bertsoak egiteko

### 3. Ebaluaketa

1. Airea eta tempoa
2. Musika tresna tradizionalak
3. Dantza eta balleta
4. Erritmo sinkopatua
5. Haizezko musika tresnak
6. Egindako bertso guztiak musikatu

## METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Erabiliko dugun metodología aktiboa eta parte hartzeko izango da.

Orff musika tresnekin, txirularekin, ahotsarekin, gorputzarekin ariketa erritmikoak eta melodikoak landu.

Musika estilo desberdinak entzun eta analizatu egingo ditugu.



# URTEKO PROGRAMAZIOA

2015~16

<b>EBALUAZIO TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]	<b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<p>Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Kontuan izanda gure ikasleak entzule eta ekoizle izando direla. Eguneroko lana eta partehartzea oso garrantzitsua izango da. Ikaslearen liburua eta koadernoak, lanak, ariketak, zuzenketak, laburpenak, entzunaldiak eta interpretazioa (kantagintza, dantza eta musika tresnak erabiltzean) ebaluazio tresnak bihurtuko dira.</p>	<p>Ebaluaketa bakoitzean azterketa bat egongo da <b>4 puntu</b> balio izango duena. Azterketak eredu desberdinetakoak izan daitezke (Test modukoak, laburrak, luzeak, gaiak Garate..)</p> <p>Horretaz gain, ebaluazioan zehar egindako ariketa praktikoko guztiak puntuatuko ditu irakasleak eta aintzat hartuko dira ebaluazioaren nota ipintzeko (<b>5 puntu</b>)., hórrela banatuta: <b>Txirula, Polirritmiak, abestu, perkusio korporala... 2,5 Ahozkotasuna 2,5</b></p> <p>Klasean izandako jarrera (partehartzea, materiala, puntualitatea...) <b>puntu 1</b></p>

<b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena,errekuperazio-sistema...]
<p>Ebaluaketa gainditu ez duten ikasleentzat froga ezberdinak egongo dira, berreskuratu behar diren zatiak ere horrela direlako (teoria ala praktika)</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Azterketa teorikoa suspenditu ezker, berreskurapen azterketa egin beharko du.</li><li>- Ariketa praktikokoak ez gainditzekotan, berreskurapena ere egin beharko da.</li></ul> <p>Ebaluazio bat gainditzeak ez du suposatzen aurreko guztiak gainditzat ematen direnik. Ohiko deialdiko nota ipintzeko, azterketaz gain, ikasleak kurtsoan zehar izandako garapena eta prozesu osoa begiratu da.</p>



# URTEKO PROGRAMAZIOA

2015~16

---

## OHARRAK

Ebaluazio bat gainditzeko, derigorrezkoa da ebaluazio horretan agindutako lan guztiak aurkeztuta eta zuzenduta egotea.